


Jura-ko arazoa



Lurrako parte bat Frantzian egon arren, inork ez zuen pentsatu Suitzatik irtetzea.

Suitza Estatu federala da: 26 «kantoi». Azkenekoa, 26.garrena, «Jura» izenekoa, orain dela 14 sortu zen.

Normalean elebakarrak dira Suitzako kantoiak. Bazeuden hiru kantai elebidun, ordea; eta hiruele-dun bat ere bai (Grisoiena, errumantxea gorde duena).

Kantoi nagusia, *Bern*-ekoa, *elebiduna* zen 1974an: gehiengo nabarmena *germanofonoa* izanik: 153.000 frankofono, kantai osoan. 1.006.000 biztanle zeudelarik (%85 alemanez ari, beraz).

Bi giza-multzoen arteko tentsioa gora zihoan aspaldidanik. 1959an egindako lehenengo aztamukan, jendearen erditsiak erakutsi zuen *Bern*-eko kantai zaharra erdibitzeko gogoia.

Hirurogeikadañ, borroka harmatura pasa ziren Juratar separatistak; eta «*Bélière*» organizazioak 2.000 militante iritsi zituen, harmaz horniturik. Hilketa batzu gertatu ziren (Suitzako kondairan sekula ez gertatutakoa); eta 1973an Autodeterminazio prozesu bat zabaltzeko unea etorri zen.

Ez zuen inork Suitzatik *irteteko* asmoa erakutsi (nahiz Jura-ko parte bat Frantzian egon). Aukera, hortaz, hau izan zen: *Bern*-eko kantai zaharri *eutsi* bai? ala Juratarrek «*26. kantoia*» sortu, eta ordurarteko kantoikideengandik berezi?.

Lehenengo referendunean (1974-VI-23) *kantoi berri bat* antolatzearen *aldekoek* irabazi zuten: 36.802 bai, 34.057 ez.

Bigarren erreferendunean (1975-III-16), kantai berri horren sorkuntzaren kontrakoak *eskualde berezian* zeudela ikusirik, kantai berrian ez sartzeko aukera eman zitzaion: Moutier, Neuveville eta Courtelary udalek, *Bern-en segitzea* erabaki zuten.

Hirugarren erreferendunean (1975-IX-7) *muga berriko* herriska batzuri, kantai zaharrean edo berrian sartzeko aukera eman zitzaion.

Geroztik Juratarrek badute beren kantoia: Federazioan antolatutako 26.garrena.

Txillardegia